



AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutz 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, gizartea, 5. zenb., 2009ko martxoa

Inmigrazioa

- **Aniztasunaren Kudeaketarako eta Elkarbizitzarako Goierriko Lehenengo Plana.**

Planaren lehentasun batzuk:

- Bailarako **Harrera Sarea** sortu eta dinamizatu.
- Planaren oinarritzko kontzeptuen eta aniztasunaren kudeaketaren inguruko **formakuntza** eskaini sarean parte hartzen duten eragileei eta udalei.
- Elkarbizitzaren inguruko **Sentsibilizazio programak** egin.
- **Aholkularitza juridiko** baten zerbitzua sortu lehen harreraren osagarri moduan.

Plana, www.goierri.org web orrialdean aurki daiteke.

- **Harrera Sarearen dinamizazioa.**

Sare honetan, arlo ezberdinetako erakundeak, elkarteak eta hiritarrak parte hartzen dute: enplegua, hezkuntza, euskara eta kultura, aisialdia eta GKEk, gizarte ongizatea, osasuna eta hirigintza. Arlo hauen guztien koordinazio eta dinamizazioa, Goiekiko Immigrazio Teknikariak egingo du.

Sare honen helburuak, bailarako eragile eta baliabide guztiak ezagutu, harrera protokolo bat sortu eta lan taldeen bitartez, aniztasunaren kudeaketarako proposamenak egitea izango dira.

Ikasketan oinarritutako herritarren-partehartzea

- **IKASIZ – Goierri eta Urola Garaiko Ikaskuntzarako Bitartekotza Zerbitzua**

- Zerbitzuaren izena + irudia eta triptiko informatiboaren sorkuntza (laster bi eskualdeetan difusio sendoa martxan jarriko da)



- “Garai larrietan erabiltzeko Adimen Emozionala” 30 orduko ikastaroa. 20 pertsonak hartzen dute parte (otsailaren 20tik apirilaren 7ra) eta beste ikastaro berri baten sorkuntza.
- Zerbitzuaren balorazio lanak (balorazio inkesten sortzea: moduluen ebaluaketa)
- Herritarrei arreta zuzena: orientazio, aholkularitza eta jarraipena.
- Ikaskuntzarako eskaintza oro biltzen duen Web orria mantendu: www.hiru.com/ikasgida. Goierri eta Urola Garaiko ikaskuntza eskaintzak web orri berri honetan informatizatzen dira.
- Autogarapenerako Tresna informatikoa berregin eta egokitu.
- Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko helburuarekin, proiektuan parte hartzen duten eragileen arteko bilerak (beste Bitartekotza Zerbitzuak)
- Ikaskuntza Sarearen handipena (antzeman diren entitate berrien



Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa

- *Web gune berria* Maiatzean ipiniko da martxan. Baliabide bat izango da kontseiluaren dinamizazioa egiteko. Honela kontseilua osatzen dutenei informazioa erraztuko zaie eta bestalde, herritarren parte hartzea bideratuko du.
- *Etxebizitza* . Emergentziatarako pisuen inguruan, eskualdean ditugun baliabideak ezagutzera eman dira gizarte langileen artean. Honako herriek dute emergentziatarako pisua; Beasain, Idiazabal, Lazkao, Segura eta Zegama. Emakumearen indarkeria jasaten duten emakumeentzako pisua Bakarra dago eskualde guztian.
Gipuzkoa mailan etxerik gabekoentzat dauden baliabideak ez dira nahikoak, gure eskualdean ez dago inongo errekurtsorik eta honen inguruko hausnarketa bat egiten ari da.
- *Emakumearen berdintasunaren* inguruan, eskualdeko elkarteekin lanean ari da. Elkarteek, emakume gazteen parte hartzea bultzatu nahi dute. Horretarako azterketa bat egitea proposatu da, Eusko jaurlaritzara.
Gai honen inguruan, foro bat sortu da, hasiera batean emakume elkarteak bakarrik hartzen zuten parte, baina berdintasunaren alorrean gaia lantzen ari diren udaletxeetara zabaldu da. Datorren bilera Ekainean izango da.



AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutx 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/ 943 16 15 37
agenda21.goeiki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ekonomia, 5. zenb., 2009ko martxo

Zertan ari gara?

1. Eskualdeko agente ekonomikoen arteko lankidetza sustatzeko pausoak gure lehentasun bilakatu dira lehen ere aipatu izan dugun lankidetza sarearen proiektuaren inguruan. Hain zuzen, lankidetza sarearen oinarritzko zutabe izango den Enpresa Txiki eta Ertainen Foroa martxan jarri berri da, otsailaren 10ean bertan parte hartzen duten 16 enpresak bildu zirelarik bigarren topagune batean. Bertan, lankidetza proiektu honen helburu eta abiatzeko lan programak definitzen saiatu ginen, hemendik, eskualdeko enpresen beharrak definitzen lagunduko digun inkesta bat zabaltzeko ekimena martxan jartzea erabaki zelarik. Hain zuzen, inkesta honen emaitzetatik irtengo dira gure enpresen beharrei aurre egiteko helburua duten lantaldeak.
2. Lankidetza sare beraren baitan, martxoaren 2an, Eskualdeko Foro Ekonomikoa ospatu zen. Bertan, eskualdeko agente ekonomiko ezberdinak, arlo ekonomikoan Goiekitik bultzatu diren ekimenak ezagutu eta etorkizunera begira jarraitu beharreko bideak definitu zituzten.
3. Aurreko urtean GOIEKI Euskadi+Innovako agente moduan aurkeztu ondoren, martxoaren 31an seigarren foroa egingo da. Bertan eskualdeko hamar enpresa inguru bildu ziren, SPRIren laguntzarekin, euren egunerokoan Berrikuntza Agendei leku bat uztearen inguruan hausnartzeko aukera izateko. Horrela, foro honetan parte hartu zuten enpresek programaren inguruko beraien interesa erakutsi dute eta beraz, euren egunerokoan berrikuntza txertatzeko bidea jarriko dute martxan. Oraingoz 80 enpresa inguru izan dira foro hauetan parte hartu dutenak, hauetatik 30 inguruk hartu dutelarik Berrikuntza Agenda aurrera eramateko konpromisoa.
4. Goiekin urteetan egin izan duen moduan, Goierriko ETEei bideraturik dagoen Hausnarketa Estrategikorako azken taldearen dinamizazioarekin amaitu dugu eta beste talde bat antolatzen hasiak gara. Bertan, eskualdeko lau mikroenpresek euren egunerokoan geldialdi bat egin eta etorkizunerako erronka berriak zehazteko aukera dute.



5. Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin lankidetzan martxan jarritako bigarren proiektuaren baitan, kasu honetan, Goierriko eskualdeko ehun industrialaren baitan ageri diren sektore pilaketa posibleak antzematea izan da helburua. Hasiera batean, kluster potentzialak izango direnak ere identifikatzeko tresna moduan diseinatu den arren, gure kasuan, nahiz eta agian jadanik badakigunaren inguruko emaitzak lortuko diren, industria espezializazioaren ideia baieztatu eta eskualdeko gainerako jarduera eta sektoreak ezagutzeko beta emango digulakoan gaude. Energia berriztagarrien sektorean zehaztu dugu gure ikerketa hasiera batean eta jarduera honen inguruan biltzen diren enpresen arteko kolaborazioa bultzatzea proiektu honen emaitza izatea espero dugu.
6. Aurtengo lehenengo hiruhilabetean, Enpresa Ekimen Berrien XII. Sariketa ezagutarazten ibili gara hedabide ezberdinetan publizitatea eginez, esate baterako, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Goierriko Hitza, Herri-Irratia, Cadena Ser eta Goierri Telebistan. Otsailaren 27an proiektuak aurkezteko epea amaitu zen. Lehiaketak 3 kategoria ditu eta guztira 5 proiektu aurkeztu dira.

Zer gehiago?

- Goierriko eskualdeko baliabideen mapa birtualaren diseinuan eta dagokion datu bilketan ari gara lanean, aurtengo udarako prest izatea espero dugularik. Gainera, tresna honen hornidura eta laguntza teknikoa eskaintzen duen Oarsoaldea, S.A.rekin akordioa sinatu dugu proiektuarekin aurrera jarraitzeko.
- Goiekiko web orri berria ari gara diseinatzen, orri dinamikoa bat izateko helburuarekin, gure enpresa eta agente ekonomikoei interesgarri zaien informazio dinamikoa bildu (laguntza eta subentzioak, kurtsoak eta formazioa, dokumentazioa, etab.) eta honen elkartruckerako gunea izan dadin.
- Eskualdearen prospekzio lanekin jarraituz, Goierriko datu sozioekonomiko interesgarrienak bilduko dituen nabigatzaile baten diseinuan ari gara lanean Cylstat enpresarekin batera. Bertan, errealitate goierritarraren hainbat datu jasoko dira, langabezia, inmigrazio, populazioa, ingurugiroa, etab. kasu.
- Garapen eta Cylstat enpresaren arteko akordioaren harira, parte hartzea erabaki dugun garapen agentziek udalerrri mailako 650 adierazle inguru biltzen dituen datu basea dugu eskuragarri, **HIRI BEHATOKIA** izeneko proiektuaren baitan. Honekin loturik, zenbait agentziek Hiri Behatokien Batzordea osatzen dugu, hain zuzen datu base honek eman dezakeen guztia edo behar duguna behintzat atera ahal izateko. Goieki urtariletik aurrera beraz, batzorde honen kide da eta ekonomia, arlo sozial eta ingurugiro gaien arabera sailkatutako ardatzen baitan, adierazleen errepasorako bileretan parte hartzen ari gara.

Goierriko Berrikuntza Gunea eraikuntza fasean dago jada, Mondragon Unibertsitatearen eraikin berriarekin hasi dena eta gunea honen barnean, oinarri teknologikoa duten enpresa berriak kokatzeko enpresa zentro bat ere kontuan hartuko da. Hurrengo apirilaren 22an, Espainiako Parke Zientifiko eta Teknologikoko Elkartearekin bilera bat ospatuko da eta bertan lankidetzat posible bat aztertuko da enpresa zentro berria abian jarri ahal izateko.





AGENDA 21 GOIERRI
GOIEKI
Mallutz 18, 20240 Ordizia
943 16 09 70/ 943 16 15 37
agenda21.goieki@goierri.org
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ingurumena, 5. zenb., 2009ko martxo

Sarrera

Urteko lehen ale honetan ingurumen lan-taldeari dagokionez komunikazio eta informazioarekin loturiko honako puntu hauek jorratuko ditugu:

Zertan ari gara?

1. 2008 urte bukaeran, bigarren urtez jarraian, eskualdeko ekintza planaren ebaluazioa egin zen. Foro Aldundiak martxan jarritako programa honen helburua agenda 21en ekintza planen ezartze maila nehurtzea da. Eskualdeko ekintza planaren kasuan ekintzen %30 inguru ezarrita edo ezartze mailan daude.
2. Goierritarra aldizkariak hilabetero plazaratzen duen Goierrihartxo gehigarrian parte hartzen jarraitzen dugu, ingurumen atalean artikulua idatziz. Hurrei zuzenduriko artikulua hauek ingurumen gai ezberdinetan oinarriturik egongo dira, mugikortasuna, hondakinak eta abar.
3. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila eta Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearekin (Udalsare21) elkarlanean GAP programa martxan jarri dugu. Programa honen helburuak ur eta energiaren kontsumoan aurrezte, garraioa eta etxeko hondakinak era zentzuzkoan erabiltzea dira, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 ekimeneen barruan sartzen den programa delarik. Izena emateko epea apirilaren 5 arte izango da, inskripzioa www.udalsare21.net eta www.goierri.org web orrialdeen bitartez egin daitekeelarik.
4. Lanean ari garen mugikortasun planaren helburua garraio publikoa hobetzea eta hau herritarrentzat erakargarriagoa bihurtzea da, eskualde bertan egiten diren bidaiak posible den neurrian garraio publikoaren bitartez egin daitezela. Eskualdeko diagnostikoa egin ondoren udal guztietako ordezkariekin, Goierrialdeakoekin, Taxista elkartearekin eta erabiltzaileekin egon gara beraien beharrak, arazo eta proposamenak biltzeko. Guzti hauekin Foru Aldundiari hurrengo hilabeteetan aurkeztea nahiko genukeen mugikortasun plana osatzen ari gara.
5. Goiekik Maiutz poligonoan dituen 16 eta 18. pabilioietan 15 Kw-ko potentzi nominala edukiko duten eguzki plakak jartzeko tramiteak egiten ari gara. Dagoeneko Industria Ministerioran baimena eskatua daukagu eta udarako instalakuntza martxan egotea espero dugu.



Hurrengo pausoak

- Azken buletinean aipatu zen bezala 2006ean onarturiko eskualdeko ekintza planaren berrikuzpena martxan jarriko da. Hiru urte hauetan zehar ekintza planeko ekintzak gauzatu dira baina gainontzeko ekintza askok zehaztasun gutxikoak dira, ez baita ekintza hori aurrera eramateko arduradunik aipatzen eta zenbait kasutan lehentasunezkoak bezala adierazi zirenak agian gaur egun ez dira lehentasunezkoak izango eta ekintza berriak proposatuko lirateke gaur egungo beharrei erantzuteko.
- Azken urte hauetan Aste Berdea hitzaldi eta beste zenbait ekintzetan oinarritu da, momentuko ingurumen gaiekin loturik. Bertan partaidetza txikia izan ohi denez aurtengorako aldaketak egitea komeni dela uste dugu eta horretarako hitzaldien ordezkari beste ekintza batzuk antolatzea pentsatzen ari gara, adibidez; ingurumen gaietan oinarritutako zine ziklo bat.... Orain, gainontzeko entitateekin elkarlanean gauzatu ditzakegun ekintza berri posibleak zehazten saiatuko gara.

